

ZER IRAKATSI EUSKAL HITZ-HURRENKERAZ ETA PUNTUAZIOAZ?

ZABALTZEN DITUGUN IDEIEN EGOKITASUNA AUZIAN

Euskara Berezituaren Mintegia¹

Zientzia Fakultatea

SARRERA²

Maiz irakurri eta entzun dugun ideia da eraginkortasun falta nabaria dutela egungo euskal testuek, alegia, ez dutela lortzen idazlearen komunikazio-helburuak betetzea. Komunikazio-arazo hauek sarri lotu dira, neurri batean behintzat, euskal hizkuntzaren ustezko barne-egitura antikomunikatiboarekin eta hainbat motatako sendagaiak gomendatu dira: mintzatutik hurbilago dagoen euskara erabiltzea, eta bereziki, esaldi laburrak egitea³; lotura-hitz iragarleak erabiltzea, adibidez, *ezen, baizik eta, baldin eta, nahiz eta...*⁴; bestalde, berriki bada euskararen joskera inguruko hizkuntza prepositiboenera hurbiltzeko tresnak lantzea proposatu duenik ere⁵. Edonola, garbi samar dago gabeziak konpontzeko formulek azken finean zerikusia dutela perpausen osagaien antolakuntzarekin eta puntuazioaren erabilerarekin.

Esaldien eta izen-sintagmen buruak, alegia, aditza eta izena, “aurreratzeko” edota “gehiegi ez atzeratzeko” gomendioa gero eta hedatuago dago, zenbaitek behin eta berriro aldarrikatu ondoren⁶, baina badira ideia horri lotuta doazen “bigarren mailako ondorioak” behar beste deskribatu eta argitu ez ditugunak. Mendeko perpausari eta puntuazioari dagozkie batez ere kontuok. Ohitura aditz- eta izen-atzerazalea Azkue eta Altuberen idazkiek hogeigarren

¹ Euskara Berezituaren Mintegia EHUko Zientzia Fakultateko bi irakasleren (Juan Carlos Odriozola eta Igone Zabala) ekimenaz abian jarri zen 2001eko abenduan. Mintegi honen helburua da euskararen eta bereziki euskara berezituaren gainean lan egiten dugunok arazoak, ikuspegiak, teoriak, proposamenak e.a. gure artean eztabaidatzeko gune bat izatea. 2002ko urtarrila eta iraila bitartean hitz-hurrenkeraren eta puntuazioaren inguruan lan egin dugu, eta komunikazio honetan gure eztabaiden ondorioak laburbilduko ditugu. Gai hauei buruzko saioretan parte hartu dutenak hauek dira: A. Aierbe, X. Altzibar, X. Bilbao, J. Duoandikoetxea, A. Elozegi, E. Etxebarria, B. Hidalgo, J. Igartua, J. Iturbe, A. Larrinaga, M. Martínez, J. C. Odriozola, E. Pérez Gaztelu, M. B. Urrutia eta I. Zabala.

² Lan hau egin ahal izateko EHUko 1/UPV 00033.310-H-19921/2001 ikerkuntza-proiektuaren diru-laguntza erabili da.

³ Gomendio hau zabal samartua dago baina bereziki kazetaritza-euskarari buruz aritu diren estilo-liburuetan aurki dezakegu. Ikus adibidez *Egunkariaren estilo liburua* (2001: 23) edota Zubimendi eta Esnal (1993)

⁴ Zubimendi eta Esnal (1993) adibidez

⁵ Rubio (2002)

⁶ Ikus Zubimendi eta Esnal (1993), Agirre (1994), Hidalgo (1996), HAEE/IVAP (1997)

mendeko prosa idatziaren gainean izan duten eraginaren ondorioa dela diote gaia sakonki aztertu dutenek, eta joera hori aldatu behar dela aldarrikatzen lau arrazoi direla eta (Hidalgo 2002):

- Testuen ulergarritasuna bermatzeko ezinbestekoa delako.
- Euskal tradizio idatziak hala egin duelako gehienetan Azkue-Altuberen eredu zabaldu arte behintzat.
- Ahozko tradizioak ere hala egin duelako eta oraingo euskara mintzatuan ere halako joera nagusitzen delako.
- Euskarari adierazkortasuna ematen dioten baliabideak ez ukatzeko.

Baieztapen hauen ildo nagusiak gehienok sinatuko genituzke seguruenik⁷, baina begiratzen badiegu eskolak emateko orduan ditugun ohiturei, testuak zuzentzeko orduan irakasten ditugun estrategiei eta estilo-liburuetan azaltzen diren gomendioei, berehala konturatzen gara abiapuntuan gaudela eta egiteke dugun bidea luze samarra dela oraindik.

1. HITZ-HURRENKERA DELA ETA ERABILTZEN DITUGUN ZENBAIT ADIGAI, TERMINO ETA ESAPIDEREN EGOKITASUNA AUZIAN

Bi esparru nagusitan ikusi ditugu ezegokitasunak Euskara Berezituaren Mintegian kontu honen inguruan:

- Didaktikaren ikuspegitik arazoak ekar ditzaketzen zenbait teknizismo erabili ohi ditugu.
- Deskripzioak berak hutsuneak ditu eta beraz, okerreko ondorioetara eraman ditzake erabiltzaileak.

⁷ Zenbait idazkera-liburutan aurkako iritziak ere ikus daiteke. Ikus adibidez Garziak (1997: 160) dioena: "Euskararen tipologiak uzten duen punturaino, egia da beste bide batetik abia zitekeela euskal prosa (Leizarragarenetik, kasurako), baina izanbalizko bideak ezin gaitu etorkizunera eraman, ez baita pasatzen orainaldi errealetik. Interesgarriak dira, jakina, aukeratu dugunaz besteko jokabide horien azterketa teorikoak, abiapuntuak garen idazmolde hori malgutu eta fintzeari begira. Arriskutsua da, hala ere, bi maila horiek — teorikoa eta praktikoa, dena eta izan zitekeena— nahastea, erreferentziarik gabe gera baikaitzke, eta dabilenaz-gainerako euskal Babel itxuragabe batean zein bere aldetik setatu. Jakina, sistema alternatiboek beren ajeei ere begiratu beharko liekete, hasteko, ea ez duten gaitza gaitzagoz erremediatu nahi. Horretaz gainera, adostasun zabal bat irabazi beharko luke dena delako ereduak, kode estandar baliagarri izango bada, eta ez endredamakila testimonial huts. (Badirudi, hala ere, halako soluzio magiko baten lilurapean bizi dela bat baino gehiago, errealtateko jardun-behar apal neketsua jasan ezinez)".

1.1. TEKNIZISMOAK ERABILTZEAREN ARAZOAK

Euskararen hiztegi- eta flexio-morfologiari begiratzen badiegu, zalantza handirik ez dago: euskara ‘burua azken’ hizkuntzatzat har dezakegu. Ideia hau baliagarria gerta dakieke erabiltzaileei gaztelaniaren (1) adibidekoen parekoak bilatu behar dituztenean.

- (1) *prejuicio* // *prehistoria*
 aurreiritzi // *historiaurre*

Datuek honen alde egiten dute, gainera, sintaxilariek “ergatiboaren lekualdatzea” deritzotenaren (*nuen, zuen...*) antzeko kasu salbuespenekoetan izan ezik⁸.

- (2) a. *behi-esne*
 b. *idazmakina*
 c. *gaitzetsi*
- (3) a. *liburua*
 b. *liburu hori*
 c. *liburutik*
 d. *egin-go d-izki-o-gu-la*

Beraz, morfologiaz ari garelarik, begi-bistakoa da euskara ‘burua azken’ hizkuntza dela, baina perpaus edota esaldi mailara goazenean korapilatu egiten dira kontuak. Egia da bi osagaiko esaldiak hartzen ditugunean esaldiaren burua, aditza alegia, eskuinean kokatzeko joera dugula (SOV). Hain zuzen ere, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez ez bezala (4).

- (4) a. Egokia *da.* / *Es apropiado.*
 b. Etxean *dago.* / *Está en casa.*
 c. Liburua *ekarri du.* / *Ha traído el libro.*

⁸ Ergatiboaren lekualdatzearen inguruan ikus Laka (1993), Albizu (1995), Artiagoitia (2000) eta Fernández (2001).

Joera esan behar diogu ordea horri, eta ez beharra edo araua. Egia da *apropiado es, en casa está* eta *el libro ha traído* esaldiak bezain gramatikatik kanpokotzat hartzen ditugula haur euskaldunei egun askotan entzuten dizkiegun *da egokia, dago etxean, da Mikel, daki euskara*. Erabat posible dira, ordea, *badago etxean, badaki euskara* eta, jakina, *ekarri du liburua*⁹. Bi osagaiko esaldi hauetan bertan ikus dezakegu euskarak gaztelaniak baino ordena askeagoa duela eta jakina frantsesak eta ingelesak baino are askeagoa. Edonola, ohikoa izaten da euskararen hitz-hurrenkeraz azalpenak ematerakoan abiapuntutzat aukeratzea SOV ordena euskararen ordena kanonikoa edota neutroa delako ideia¹⁰.

Hizkuntzaren barne-egitura eta esaldi neutroen finkapenez baliatzen da Gramatika Sortzailearen metodologia, baina ideia okerrak eragin ditzakeela uste dugu gauzaturiko esaldi agerikoen berri bakarrik duten hiztunen artean. Areago, hiztun-ikasleek esaldi neutro/esaldi markatu bereizketa agerpen-maiztasunarekin lotzeko joera izango dute: markatua gutxitan agertzearekin eta arraroa izatearekin lotuko dute. Era berean, euskara SOV hizkuntza dela esaten diogunean erabiltzaileak pentsa lezake SOV dela oro har euskaraz esaldiak sortzeko erabili behar duen formula, edota gehien bat erabili behar duena. Hortaz, ez dirudi esapide hauek oso egokiak direnik erabiltzaileei hobeto idazten laguntzeko orduan.

Euskaltzaindiak esaten digu galdegaiaren tokia aditzaren ezkerrekoa dela baina esaten digu zenbaitetan, eta bereziki euskara mintzatuan “intonazioak aipatu ordena hau hauts lezake, galdegaia aditzaren eskuinean ematen delarik orduan”. Galdegaiaren izaera ere kontuan hartu behar dela esaten du Euskaltzaindiak “Adibidez, esaldi menperatu luze eta korapilatsu batek osatzen duenean, aditzaren eskuinaldean emateko joera dugu”. Alberdi eta Sarasola-ren (2001) liburuan ere, ondoko izenburua darama atal batek: “Perpau osagarrien salbuespena edo lizentzia: galdegaia predikatu nagusiaren ondoren”¹¹. Arau-hauste edo lizentzia modura aurkezten dira maiz galdegaia aditzaren eskuinean daramaten esaldiak eta honek erabiltzaileak halakoak ez egitera daramatzala esan genezake. Galdegaia aditzaren eskuinean daramaten esaldiak euskararen gramatikak onartzen baditu¹², eta areago, zenbait

⁹ Aditza (trinkoa edo perifrastikoa) esaldiaren hasieran ere eman daiteke euskaraz, baina hurrenkera hori nekez aurkitzen dugu horren esaldi laburretan.

¹⁰ Halako abiapuntua ikus daiteke adibidez ondoko lanetan: Euskaltzaindia (1987), Osa (1990), Zabala (2000), Alberdi eta Sarasola (2001).

¹¹ “Lizentzia” kalifikazio hori Garziaren (1997) liburuan ere erabiltzen da.

¹² Jakina, hemen euskararen gramatika esaten dugunean, euskal hiztunok buruan dugun gramatikaz ari gara eta ez gramatikariak beren lan eta liburuetan egiten dituzten deskripzioez. Izan ere, gramatikariak hizkuntzaren jokaera antzematen saiatzen badira ere, ez dute lortzen erabateko deskripzio perfektua, beste edozein jakintza-

testuingurutan hitzuneak halakoak beste batzuk baino nahiago badituzte, ez zaigu iruditzen lege-haustea edo lizentzia bezalako kalifikazioa merezi dutenik. Aztertu eta azaldu behar duguna da zer alde dagoen esaldien osagaien antolakuntza desberdinen artean.

1.2. DESKRIPZIOAREN HUTSUNEAK

De Rijk-en (1968) azterketa estatistikoek euskara SOV hizkuntza delako ideiaaren alde egiten zutela zirudien¹³. Hidakok (1994, 1995) frogatu duen bezala, esaldiaren osagai kopurua handitzen dugun neurrian nabariki murrizten da aditza bukaeran daramaten esaldien ehunekoa. Izan ere, hiru osagaitik gora, handiagoa da aditza tartekaturik duten esaldien kopurua aditza bukaeran edo hasieran dutenena baino.

Osak (1990) ondoko ezaugarri hauek lotzen ditu ordena neutroarekin¹⁴, SOV ordenarekin alegia:

- Testuinguruarekiko mendekotasun txikiena duena da
- Presuposizio gutxien ezartzen duena
- Prosodikoki lauena
- ZER GERTATZEN DEN galderaren erantzuna
- Aipatu litekeena titularretan (nahiz eta gutxiago erabili)
- Perpaus osoa informazio berria lukeena

Ezaugarri hauek kontuan hartuta, SOV hurrenkera neutroa dela esateak, esan nahiko luke kontakizun baten hasieran, alegia, osagai guztiak berriak direnean, hurrenkera hori erabili beharko genukeela. Edonola, ezaguna da seme galduaren parabolaren hasiera (5)ean azaltzen diren bost moduetara gutxienez idatzi izan dutela euskal idazleek:


- (5) a. Gizon batek bi seme zituen.

esparrutan bezala. Hortaz, benetan arriskutsua da hizkuntza gramatikarien deskripzioetatik urruntzen denean ‘arau-haustea’ gertatzen direla esatea: deskripzioak dira moldatu behar direnak hizkuntzaren benetako “arauak”, alegia, buruan ditugunak, antzematera hurbiltzeko saio etengabeak.

¹³ Gramatika sortzailearen barruan ere badira euskararen oinarritzko ordena SVO dela aldarrikatzen duten lanak: Ormazabal, Uriagereka, Uribe-Etxebarria (1994), Albizu (1995), Elordieta (1997). Izan ere, Kayne-k (1994) aldarrikatu du hizkuntza guztien barne-ordena SVO dela eta oinarritzko ordena horretatik eratorritzen direla bestelako ordena guztiak. Aipaturiko lan horiek Kayne-ren teoria-ildoak hartu dute abiapuntutzat.

- b. Bi seme zituen gizon batek
- c. Gizon batek zituen bi seme.
- d. Gizon batek bazituen bi seme.
- e. Gizon batek bi seme bazituen.

Testuinguru neutro honetan ordena neutroa bakarrik espero genezake ‘pragmatikoki ez-markatua’ kontzeptutik abiatuta. Prosodiari begira ere, zaila dirudi esaldi horien artean lauena zein den ikustea. Oinarrizko maiztasunaren (f0) gailurretako bakoitzak mugatzen du gutxieneko intonazio-unitate (IU) bakoitza. Euskara batuaren ohiko ahoskeraz¹⁵ IUaren lehen silabetan kokatzen da gailur hori. Etenik badago, seguru da IU baten mugan gaudela.



Hortaz, SOV ordena ez da testuinguru pragmatikoki ez-markatueta aurki/ erabil daitekeen bakarra, eta ez da prosodikoki lauena.

Komunikazioaren ikuspuntutik, intonazio-unitateak bat datozke informazio-unitate esaten zaienekin eta (6)ko adibideek informazio-egitura desberdina dute: (6a) eta (6c) adibideetan bi informazio-unitate ditugu eta (6b) adibidean aldiz, informazio-unitate bat edo bi¹⁶.

¹⁴ Markatu/ez-markatu bereizketari hainbat esangura ematen dizkiogu sintaxi- eta morfologia-lanetan, baina normalean erabiltzen dugun modua ikusita, uste izatekoa da “pragmatikoki markatua/ ez-markatua berbaldiaren arabera” kontzeptuari lotuta erabiltzen dugula. Ikus honen inguruan Dryer (1995) adibidez.

¹⁵ Ikus Hualde (1997).

¹⁶ Izatez, informazio- eta intonazio-unitateak sintaxi-prozesu batzuen ondorioz eratzen dira eta prozesu hauek dira sintaxilarien ikerketen xedea: sintaxilarien eginkizuna da argitzea nola heltzen garen barne-ordenatik (euskaraz agian SOV ordenatik/edo SVO ordenatik 13 oharrean aipaturiko lanen arabera) azaleratzen den ordenaraino. Azken batean, sintaxi-prozesuek ondorioak dituzte Forma Fonologikoan eta Forma Logikoan esaten zaien adierazpen-mailetan eta intonazio-unitateak eta informazio-unitateak ondorio horiek dira. Edonola, erabiltzaileari hizkuntzak azalean hartzen duen itxurari buruz hitz egin behar diogu eta ez azal horretara heltzeko baliatzen ditugun sintaxi-prozesuei buruz.

Hurrenkera bakar batek hainbat informazio-egitura izan ditzake, ezartzen diogun prosodiaren arabera. Irakurtzen ari garen testuaren prosodia erabakitzeke orduan, testuinguruaz baliatuko gara neurri handian. Esate baterako (7)ko adibideari (a) informazio-egitura egotziko genioke *Nor etorri da?* edo *Zer gertatu da?* galderen testuinguruan, baina (b) informazio-egitura egotziko genioke *Norekin etorri da Jon?* galderaren testuinguruan. Informazio-egitura bakoitza prosodia jakin batekin lagunduta etorriko da jakina.

- (7) Jon etorri da Mirenekin.
- a. [JON etorri da Mirenekin] // [JON etorri da] [Mirenekin]
 - b. [Jon etorri da] [MIRENEKIN]

Azkenik, Euskaltzaindiak esaten digu esaldi batean galdegairik badago, galdegai horrek aditzaren ezker aldeko lehen gunea hartu ohi duela. Hau egia da aditza esaldiaren bukaeran azaltzen bada, baina ez da gehienetan egia aditza erdialdean badago. Bestetik, bereizi beharko lirateke galdegai mota desberdinak. Adibidez, zuzenketa-galdegaiak oso maiz azaltzen dira aditzaren eskuinean (Ortiz de Urbina 2002). Honelako galdegaiak erabiltzen direnean aurrean emandako informazioaren zati bat balioetsi egiten da eta zuzendu egiten da okertzat hartzen den zatia:

- (8) - Andoniri liburu bat ekarri zioten atzo.
- Ez, liburu bat ekarri zioten atzo # PERURI.

Laburbilduz, SOV hurrenkera ez dirudi maiztasun handienekoa denik eta ez da testuinguru pragmatikoki neutroetan aurki dezakegun bakarra. Bestetik, ez dago lotura biunibokorik hurrenkera baten eta informazio-egitura baten artean, hainbat informazio-egitura egon baitaitezke lotuta hurrenkera bakar batekin. Mintzatuan prosodian islatzen dira informazio-egitura horiek. Azkenik, galdegai mota desberdinak kontuan hartuta, ez da egia euskaraz galdegaia gehienetan aditzaren ezkerrean kokatzen denik. Ez zaigu, hortaz, egoki iruditzen lizentziez edo arau-hausteez hitz egitea.

2. INFORMAZIO-EGITURAN OINARRITURIKO ANALISIA

Didaktikaren ikuspuntutik ohikoa baino askoz ere emankorragoa izan daiteke, gure iritziz, informazio-egituran oinarritutako ikuspegia. Ondoko ideiak dirateke aipatu ikuspegiaren abiapuntua:

- Berbaldia esalditan antolatzen da. Esaldiak aditz nagusi baten mendekoak edo izen baten mendekoak izan daitezke, baina hauek ageriak edo ezkutuak izan daitezke. Esaldi hauek ez dira beti helduko perpaus izatera. Esate baterako (9)ko esaldiak IU bakarreko edo biko esaldiak dira *Non dago Jon?* galderaren erantzunak izan daitezkeenak.

- (9)
 - a. [Mirenekin]
 - b. [Egongelan]
 - c. [Egongelan Mirenekin] // [Egongelan] [Mirenekin]

- Informazio-egituraren oinarritzko unitateak ezin defini daitezke berezko ezaugarrien bidez (zertaztasuna, zahar/berri, kokagunea edo intonazioa). Mezu-hartzailearen ikuspegitik definitu behar dira, hau da, hartzaileak IU bakoitza jasotzean lortzen duen asetze mailaren arabera (gogoratu (7) adibidea):

- a) Hartzailea ase gera badaiteke, alegia, esaldia bukatutzat eman badezake, informazio-unitate betea izango dugu (IUB).
- b) Hartzailea ezin gera badaiteke ase, informazio-unitate betegabea izango dugu (IUBG).

- Puntuazioari begira ere, lehen arau garbia atera dezakegu hemendik: ez da komenigarria komarrik jartzea IUen barruan; bi puntuak eta puntu eta koma bakarrik erabil daitezke IUBen ondoren, inoiz ez IUBGen ondoren. Puntua bakarrik erabil daiteke esaldien artean eta beraz, IUBen ondoren.

- Mezu-hartzaileak informazioa prozesatzeko balia ditzakeen elementuak desberdinak dira mezu mintzatuak eta mezu idatziak deskodifikatu behar dituenen.

MINTZATUA	IDATZIA IRAKURTZEAN
Solaskideak erabiltzen dituen Intonazio Unitateak (informazio-unitateak ere badirenak)	Irakurtzen goazen neurrian interpretatzen ditugun intonazio-unitateak, informazio-unitatetzat hartzen ditugunak. Esaldia interpretatzen hasteko ez dugu itxaroten sintagma edo perpaus osoak irakurri arte.
Bat-bateko hizketan 1-8 silabakoak (ohikoenak 3-5 silabakoak) dira IUak, eta ahoz gorako irakurketan edo buruz ikasitako testuetan 1-14 silaba bitartekoak (ohikoenak 5-10 bitartekoak) IUak	Irakurleak ez du esaldika irakurtzen, zatika baizik (20 bat karaktereko zatiak): IUen tamainako zatiak hautematen ditu gutxi gorabehera, fixazio-puntutik 4 ezkerrera eta 14 bat eskuinera.
Eten luzeagoak edo laburragoak	Idazleak erabilitako puntuazioa (ezaugarri prosodiko jakin batzuk adierazten dituena) ¹⁷
Testuinguruaz duen informazioa	
Munduari buruz duen informazioa	
Bere hizkuntzaren ‘hiztegiak’ duen ezagutza	
Bere hizkuntzaren morfosintaxiaz duen ezagutza	

(7) adibideetan ikusi dugun bezala, esaldi baten informazio-egitura ezin aurrean dezakegu testuingurua ezagutu gabe. Munduari buruz dugun ezagutza ere garrantzitsua da. Izan ere, (10) adibidearen informazio-egitura erabaki beharko bagenu testuingururik gabe, (10a) egitura egotziko genioke seguruenik: gizakiok gizakiez mintzatzeko joera dugu, eta esaldi baten aurrean joera izango dugu, beste daturik ezean, [+gizaki] tasuna daraman osagaia mintzagaitzat hartzeko.

- (10) Diruak galdu zuen Jon.
- a. [DIRUAK galdu zuen Jon]
 - b. # [Diruak] [GALDU ZUEN Jon]
 - c. # [Diruak galdu zuen] [JON]

Edonola, funtsezkoa da gure hizkuntzaren hiztegi abstraktuaz dugun ezagutza ere. Aditzen kasuan eta oro har predikatuen kasuan, hiztunak badu informazioa horien argumentu-egituraz. Hori dela eta, testu-aurrean emanda ez datorren argumenturen bat falta bazaio, hiztunak badaki IUBGa dela prozesatzen ari dena (11b) (hori adierazteko erabili ditugu eten-puntuak), baina (11a) esaldiak solaskidea ase utz dezake (hori adierazteko erabili dugu kortxete beltza). Ase utz dezaketela esan dugu eta ez beti ase utziko dutela. Izan ere, testu-aurrean garbi egon daiteke gizonak alde egin zuelako ideia eta beraz, progresio tematikoak beste osagaien bat eskatuko liguke ase geratzeko.

- (11) a. [Gizonak alde egin zuen]
 b. [Gizonak zituen] ...

Izen-sintagmen kasuan, funtsezkoa da ‘espezifikotasunarekin’ zerikusia duena. Irakurketa ez-espezifikoa duen izen-sintagma bat irakurtzen edo entzuten duenean, hiztunak sortuko dituen hipotesien artean egongo da IS horren erreferentzia mugatuko duen osagai bat etor litekeela ondoren.

- (12) a. [Beti egon da txakurren bat] ... baserria zaindu izan duena
 b. [Beti izan dugu Mikel]



Hiztunak bere hizkuntzaren morfosintaxiaz duen ezagutza ere oso garrantzitsua da informazioa prozesatzeko. Izan ere, hiztunak badaki *uhinen* edo *hutsean zeharreko* segida batekin ezin gera daitekeela ase, baina badaki *-a* bukaera duten (13c, d) bezalakoekin ase gera daitekeela (izenburuetan edota irudi-oinetan adibidez). Era berean, hiztunak badaki *infinitu* zenbatzailearekin batera mugatzailerik gabeko sintagmak aurki ditzakeela (13e).

- (13) a. [uhinen]...
 b. [hutsean zeharreko]...
 c. [uhinena]
 d. [uhinen hedapena]
 e. [infinitu uhin]

¹⁷ Ikus Odriozola (2002)

3. INFORMAZIO UNITATE MOTAK ETA PUNTUAZIOA

IUBGek bestelako IUak behar dituzte esaldiak eratzeko. Elementu batzuek, IUBak eratzeko gauza badira ere, hainbat testuinguru pragmatikotan IUBGak ere osatzen dituzte. Demagun adibidez, *Nori emango diozu?* galderaren testuingurua: (14a) erantzunean IUBa da *zuri*, baina (14b) erantzunean IUBGa da. Prosodian bereizten dira bi hauek, IUBaren bukaerak beheranzko intonazioa du eta idatzian, puntua eramango du, esaldiaren bukaera adierazteko. (14b) erantzunean aldiz, goranzko intonazioa dugu bukaeran.

- (14) a.  [Zuri].
- b.  [Zuri] [ez dizut emango].

Hainbat predikaturekin ere gertatzen zaigu antzeko zerbait: IUBak era ditzakete baina IUBGak ere eraten dituzte maiz. Hauetan ere, intonazioak bereizten ditu batzuk eta besteak.

- (15) a. [Egia da]. / [Egia da] [ideiarik ez duela].
b. [Badaki]. / [Badaki] [egin behar duela].

(15)ekoen antzeko predikatu batzuek aldiz, beti eraten dituzte IUBGak (16):

- (16) a. *[Kontua da]. / [Kontua da] [ez duela ideiarik ere].
b. *[Gauza da]¹⁸. / [Gauza da] [egin behar dugula].

(15) eta (16) adibide sortetako eskuineko aldaeren bereizgarria da IUBGaren bukaerako goranzko intonazioa, atzetik osagarri bat datorrela iragartzen diguna. Oso hedaturik dago egungo testuetan halako predikatuen ondoren koma jartzea. Honek ordea, nahi ez dugun beheranzko intonazioa eragiten du, eta beraz, ez deritzogu komenigarria halako testuinguruetan koma jartzeari. Antzeko gomendioa ikus daiteke Zubimendi eta Esnalen (1993: 223) eta Garziaren (1997: 164) lanetan ere.

Batzuetan tarteki bat sartzen da IUBGa eraten duen predikatuaren eta informazioa osatzen duen osagaiaren artean. Orduan, koma artean idazten da tartekia eta behar den intonazioa

¹⁸ Ez bada *gai da* segidaren pareko irakurketarekin.

lortzen da. Joera hau Zubimendi eta Esnalek (1993: 226) azpimarratu dute, Mitxelenaren testuetatik ateratako adibideez lagunduta.

- (17) a. [Kontua da], hain zuzen ere, [ez duela ideiarik ere].
b. [Bistan da], ageri-agerian, [ez duela ideiarik ere].

Oso ohikoak dira euskal esaldien hasieran [subjektua+aditza] edo [osagarria+aditza] erako IUBGak. Guztien bereizgarria da bukaerako goranzko intonazioa. Honelako esaldietan subjektuak edo osagarriak eta aditzak IU bakarra eratzen dute eta ezin jar daiteke komarik subjektuaren ostean. Ez dugu uste ordea, egokia denik oso zabaldurik dagoen araua, alegia, subjektuaren ostean inoiz ere komarik ezin jar daitekeela esaten duena¹⁹.

- (18) a. [Mikelek dio] [kalera joan behar dugula]
b. [Piramideak dira] [Egiptoko eraikin antzin-antzinakoak]
c. [Honekin batera bidaltzen dizut] [eskatu zenidan gutuna]

Honelakoetan Garziaren (1997) iritziz, irakurlea galdua egongo da eman behar zaion intonazioa argituko luketen puntuazio-bereziak (azentuak, goiko arrasta) erabili ezean. Ez dugu uste irakurleari egozten zaizkion zalantza horiek bene-benetakoak direnik: ez dugu esaldika irakurtzen, zatika baino, begi-kolpeka alegia. Begi-kolpe bakoitzean 20 bat karaktere ditugu ikusmiran: fixazio-puntutik 4 ezkerrean eta 14-5 eskuinera. Fixazio-puntu bakoitza aurrekoa baino 7-9 karaktere aurrerago jartzen da, eta beraz, zati batzuk hiru edo lau aldiz ikusten ditu irakurleak. Ikusi dugun bezala, IUBek eta IUBGek antzeko hasiera izaten dute, alegia, goranzko intonazioa. Irakurleak IUaren bukaera arte ez du erabaki behar goranzko edo beheranzko intonazioa eman behar ote dion IUaren bukaerari. Bukaerako intonazio hori erabaki behar duenerako, ikusmiran du hurrengo IUaren zati bat behintzat, eta beraz, testuingurutik egin dituen presuposizioak eta bere hizkuntzaren hiztegiak eta morfosintaxiaz duen ezagutza baliatuz, badaki, gure iritziz puntuazio-marka berririk gabe, nola irakurri behar duen IU horren bukaera.

¹⁹ Zubimendi eta Esnalek (1993: 33) azpimarratzen dute arau hau orokorra dela inguruko hizkuntza landu guztietan baina ez dutela bere horretan onartu izan euskal idazle guztiek. Guk ere uste dugu ñabardura asko behar dituela halako baieztapenak.

(18) sortako IUBGen ondoren koma jartzen badugu, irakurlea behar ez den beheranzko intonazioa egitera eramango dugu. Bi puntuen erabilerari ere ez deritzogu egoki testuinguru honetan²⁰: IUBen ondoren bakarrik dira egokiak gure iritiz bi puntuak.

- (19) a. [Matematikaren atalak] [lau dira]: analisia, algebra, geometria eta zenbakien teoria.
- b. [Hau esan zidan]: “Dakienak badaki”.
- c. [Hutsaren hurrengoa ginen]: inork ez zigun kasurik egiten.
- d. [Ez da etorri]: gaixorik dago.

Esaldiaren hasieran jartzen ditugun lokailuek osagai bakarreko IUak eratzeko joera dute eta oso hedatuta dago koma jartzea horien eskuinean²¹.

- (20) [Beraz], [ez dugu egingo]

Tartekiak sartzeko erabili ohi diren *alegia*, *hots* eta *hau da* bezalako lokailuek ere joera dute osagai bakarreko IUak eratzeko eta komen artean idatzi ohi dira. Lokailua tartekiaren ondoren ematen denean (21c) aldiz, ez dirudi koma beharrezkoa denik, IU bakarrean emateko bezain laburra bada behintzat²².

- (21) a. [Larunbatean etorriko dira], [hots], [martxoaren 6an].
- b. [Larunbatean etorriko dira], [alegia], [martxoaren 6an].
- c. [Larunbatean etorriko dira], [martxoaren 6an (,) alegia].

Prozesatzea zailtzen du IUBG ugari emateak IUB batera heldu aurretik (ikus 5. Atala). Horietako IUBGetako bat lokailua denean, oso maiz eramaten da hurrengo IUBGaren atzera IU bakarra sortzeko asmoz. Honelakoetan lokailua koma artean jartzeko ohitura dago baina ez dugu uste koma hori beharrezkoa denik ez eta lagungarria denik ere (IUa laburra denean

²⁰ Zubimendi eta Esnalek (1993: 61) oso ondo laburtu dute bi puntuen erabilera orokorra. Azterketa xeheagoa nahi duenak ikus Odriozola (2002).

²¹ Makazagak (1996) azpimarratu duenez, zenbaitetan, lokailuek bestelako funtzioak betetzen dituzten homofonoak dituztenez, komaren bidez desanbiguatzen diren esaldi anbiguoak sortzen dira:

i. [Horregatik], etorri dira. ii. [Horregatik etorri dira]

²² Ikus Zabala (1996).

behintzat). Gure xedea irakurleak bi IU bereiztea denean bakarrik erabili beharko genuke koma hori.

- (22) a. [Beraz], [zure laguna] [datorren astean etorriko da]. [Ezta?]
b. [Zure laguna (,) beraz], [datorren astean etorriko da]. [Ezta?]

Edonola, badira zenbait lokailu beste osagai bati lotuta joateko joera dutenak: *behintzat*, *gutxienez*, *ere*, *aldiz*, *berriz*, *ostera*, *ordea*²³. Horien artean, *ere* oso maiz izaten da laguntzen duen osagaiaren enklitiko eta ez zaio normalean komarik jartzen ezkerrean. *Behintzat* bezalako lokailuak ere ezkerreko komarik gabe erabili ohi dira, baina gainerakoak koma artean idaztea izaten da ohikoena. Gure iritziz koma horrek ezkerreko osagaia eta lokailua bereiziriko IUetan ematera eramaten gaitu eta bakarrik erabili beharko litzateke gure xedea hain zuzen ere irakurleak hala irakurtzea bada:

- (23) a. [Jon ere], [Bilbon bizi da].
b. [Jon behintzat], [Bilbon bizi da].
c. [Jon(,)aldiz], [Bilbon bizi da].

Zenbait juntagailuk (*eta*, *ala*, *edo*, *baina*) bereiziriko IUak eratzen dituzte ezkerrean duten osagaiarekiko baina eskuinean daramaten osagaiarekin batera antolatzeko joera dute. Zentzuzkoa deritzogu honelakoetan jarri ohi den komari (24a). Juntagailuaren ostean lokailu bat datorrenean aldiz, ez deritzogu egoki lokailua koma artean jartzeari (24b). Izan ere, honelakoetan ere, juntagailua eta lokailua IU bakarrean emateko joera dugu:

- (24) a. Eskailera sisteman jokatu da txapelketa, [eta partida bat galdu duena] kanporatuta geratu da.
b. Eskailera sisteman jokatu da txapelketa, [eta(,) beraz], partida bat galdu duena kanporatuta geratu da.
[Egunkariaren estilo liburua 2001: 45]

²³ Osak (1990) honelakoek mintzagaia nabarmentzeko eginkizuna dutela dio.

4. EZ PILATU IUBG-AK

IUBak dira irakurlea ase utz dezaketenak. Esaldiaren hasieran, edo IUBGren baten edo batzuen ondoren azal daitezke. Kontua errazteagatik *letrakera etzanez* adieraziko ditugu IUBak atal honetan.

- (25) a. [Gizon batek] [*bi seme zituen*].
b. [*Bi seme zituen gizon batek*].
c. [Gizon batek] [*bi seme zituen espetxean*].
d. [Gizon batek zituen] [*bi seme*].
e. [Gizon batek zituen bi seme] [*espetxean*].

IUBaren aurretik IUBG bakarra duten esaldiak egokiagoztat hartu ohi ditugu oro har euskaraz (Zabala eta Odriozola 1992; Alberdi eta Sarasola 2001). Prozesatzearekin lotuta daude idazleek IUBGen pilaketari lotuta antzematen dituzten oztopoak: hiztunak IUB batera heldu arte “memoria laburrean” gorde behar ditu IU horiek, baina IUB batera heltzen denean, prozesatu ahal ditu memoria laburrean gorde dituen horiek. Hori dela eta, (26b) (26a) baino errazago prozesatzen dugu.

- (26) a. [Goizean] [lantokian][nagusiek eta langileek] [*oso biltzar luzea izan zuten*].
b. [Goizean] [*oso biltzar luzea izan zuten*] [lantokian][nagusiek eta langileek].

Perpauak ere izan daitezke IUBak. Edonola, oso perpau luzeak badira, IU bat baino gehiagotan ebaki beharko dira (27b). Honelakoetan ere kontuan hartzeko modukoa da IUBa aurreratzeak prozesatzea errazten duela (27c):

- (27) a. [Egia da] [*zaila dela*].
b. [Egia da] [atzo] [Mikel ikusi bezain laster] [*denak isildu ginela*].
c. [Egia da] [*denak isildu ginela*] [atzo] [Mikel ikusi bezain laster].

Hainbat osagai koordinatu ditugunean, nahitaez gauzatu behar ditugu bereiziriko IUetan; hori dela eta, osagai horiek aditzaren ezkerrean jartzen baditugu, IUBG ugari pilatzen zaizkigu aditzaren ezkerrean (28a). Halako osagaiak aditzaren eskuinean jartzen ditugunean aldiz, prozesatzen joaten gara irakurri ahala eta askoz ere errazagoa egiten zaigu segida (28b). Beste horrenbeste esan daiteke koordinaturiko perpaus konpletiboak edo bestelakoak ditugunean (29).

- (28) a. [Matematikaren atal nagusiak] [analisi], [algebra], [geometria]
[eta zenbakien teoria] [dira].
- b. [Matematikaren atalak dira] [analisi], [algebra], [geometria] [eta zenbakien teoria].
- (29) a. [Testua ulergaitza dela] eta [aldaketak egin behar ditugula] [esan digute].
- b. [Esan digute] [testua ulergaitza dela] [eta aldaketak egin behar ditugula].

5. ADITZA GEHIEGI EZ ATZERATZEKO GOMENDIOA

Idazteko orduan argitasuna eta ekonomia bilatzekotan, gero eta zabalduago dagoen gomendioa da aditza aurreratzearena. Edonola, gure iritiz, gomendio horri etekin osoa ateratzeko, euskarak eskaintzen dizkigun aukera guztiak azken punturaino landu behar ditugu aurreiritzirik gabe. Itzulpen honetan (30a), askotan gertatzen zaigun bezala, topo egin dugu osagarri luze batekin, prozesatzea oztopatzen diguna.

- (30) a. Teknika hau [oso kontzentrazio baxuan dauden errotiferoak (5 errot./ml.) fase esponenzialean dagoen fitoplankton-hazkuntza batean (5.eguna) inokulatzean] datza.

Eman ohi den gomendioari jarraiki, aditza aurrera genezake (30b) adibidean bezala.

- (30) b. Teknika hau honetan datza: oso kontzentrazio baxuan dauden errotiferoak (5 errot./ml.) fase esponenzialean dagoen fitoplankton-hazkuntza batean (5.eguna) inokulatzean.

Aukera hau ordea, formalegi gertatzen zaigu gehienetan, eta gainera, prozesatze-arazoak ditu oraindik ere. Beste aukera bat litzateke esaldia [subjektua+aditza] moduko IU batekin hastea (30c). Edonola, adizki sintetikoa izanik, gogor samar egiten zaigu egun hasieran²⁴ eta osagarriaren aurrean errazago onar dezakegun esapide bat jar dezakegu (30c) adibidean bezala. Ikus parentesi arteko tartekiek beti eragiten dutela aparteko IUa.

- (30) c. Teknika honen funtsa da [oso kontzentrazio baxuan dauden errotiferoak] (5 errot./ml.) [fase esponentzian dagoen] [fitoplankton-hazkuntza batean] (5.eguna) [inokulazioa]

Hala ere, osagarria oso luzea da oraindik, eta teknika horretan zerbait inokulatu dela jakiteko, bi lerro irakurri behar ditugu. Bestetik, parentesi arteko tartekiek oztopo egiten digute, eta kasu honetan tartekiak ezin ezaba ditzakegu gainera. Mendeko perpausaren aditza aurreratu beharko genuke teknikaren funtsa lehenbailehen izateko. Noraino aurreratu beharko genuke baina? Mendeko perpausaren aditza hasieraraino eramaten badugu, hiru IU oso labur ditugu elkarrekin, eta arinegi gertatzen zaigu segida hori idatzirako (30d). Gainera, mendeko perpausaren gainerako osagaiak pilaturik geratzen zaizkigu. Egia da edonola, mendeko aditza aurreratuta, errazago txertatzen ditugula parentesi arteko tartekiak.

- (30) d. [Teknika honen funtsa da] [inokulazioa] [oso kontzentrazio baxuan dauden errotiferoak] (5 errot./ml.) [fase esponentzian (5.eguna) dagoen] [fitoplankton-hazkuntza batean]

Beste aukera bat da mendeko aditzaren aurreratzea erabiltzea mendeko perpausaren bi argumentuak banatzeko (30e). Era honetan, prozesatzen errazago bihurtzen dugu IUBa lehenago emanaz. Edonola, lehen parentesiak oztopo handiagoa egiten digu (30d) adibidean baino, apurtu egiten baitugu mendeko perpausaren osagarri zuzenaren (*oso kontzentrazio baxuan dauden errotiferoak*) eta mendeko aditzaren (*inokulazioa*) arteko lotura.

- (30) e. [Teknika honen funtsa da] [oso kontzentrazio baxuan

²⁴ Euskara tekniko-zientifikoarekin ohituta ez daudenei bitxi samar irudituko zaie agian *datza* adizkia, baina honelako hizkeretan erabat sustraituta dago adizki hau, eta ia finkaturiko esapidetzat har genezake.

dauden errotiferoak] (5 errot./ml.) [inokulatzea] [fase esponenzialean dagoen] [fitoplankton-hazkuntza batean] (5.eguna)]

Hortaz, aditza osagai luzeak baino lehenago emanez, lortzen dugu atzetik datorrena aurreikusten laguntzen digun ‘informazio lexikoa’. Aditz nagusia ez ezik, mendeko aditza ere aurreratzen badugu, IUBak aurreratzea lortzen dugu. Batzuetan ematen den gomendioa da esaldi laburrak idaztea. Horri baino garrantzitsuagoa deritzogu ordea, esaldiaren barruan informazioa prozesatzen erraza den era batean antolatzeari.

BIBLIOGRAFIA

- Agirre, J.M. 1994. “Desoreka sintaktikoak”. *Administrazioa euskaraz*, 6.
- Alberdi, X.; Sarasola, I. 2001. *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Albizu, P. 1995a. “Word order in Basque and its implications for the theory of focus”. Los Angeles: USC-ko eskuizkribua.
- . 1995b. “A Distributive Morphology-based Analysis for Ergative Displacement in Basque”. Coruña: V Coloquio de Gramática Generativa (eskuizkribua).
- Artiagoitia, X. 2000. *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Gasteiz: EHU eta Arabako Foru Aldundia.
- Dryer, M.S. 1995. “Frequency and pragmatically unmarked word order”. In P. Downing; M. Noonan (ed.), *Word order in discours*. Amsterdam: John Benjamins, 105-136 or.
- Egunkaria. 2001. *Estilo liburua*. Donostia.
- Elordieta, A. 1997. “Polivalent Auxiliaries in Participial Constructions in Basque”. Groningen: TABU-dag-en aurkezturiko lana.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I* (eranskina). Bilbo.
- . 1993. *Gramatika Laburra*. Bilbo.
- Fernández, B. 2001. “Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: ergatiboaren lekualdatzetik datiboaren lekualdatzera”. In B. Fernández; P. Albizu (ed.) *Kasu eta komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 147-166 or.
- Garzia, J. 1997. *Joskera lantegi*. Zarautz: IVAP.
- Greenberg, J. 1966. *Languages Universals (with special reference to features hierarchies)*. The Hague: Mouton.

- HAEE/IVAP. 1997. *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. Administrazioa euskaraz. Vitoria-Gasteiz: IVAP.
- Hidalgo, B. 1994. *Hitz ordena euskaraz*. EHUko doktoretza-tesia.
- . 1995. “Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru: Euskara, S.V.O.?” *FLV*, 70, 401-420 or.
- . 1996a. “Euskararen mito kaltegarriak. (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean”. *Hizpide*, 35, 39-51 or.
- . 1996b. “Euskararen mito kaltegarriak. (II). Euskararen hitz-ordena librea”. *Hizpide*, 36, 21-27 or.
- . 1996c. “Euskararen mito kaltegarriak. (III). Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran”. *Hizpide*, 37, 23-31 or.
- . 1999. “Hitzen ordena eta esaldiaren egitura informatiboa. Gogoeta historiko zenbaiten berri labur. Antzinatea”. *FLV*, 82, 431-457 or.
- . 2000a. “Galdegai” bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi bila (I)”. *Uztaro*, 33, 43-85 or.
- . 2000b. “Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio-egituraren aukerak eta eraginak. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi bila (II)”. *Uztaro*, 34, 39-85 or.
- . 2002. “Hitzen ordena esaldian”. 2002ko otsailean Euskara Berezituaren Mintegian emandako hitzaldia.
- Hualde, J.I. 1997. *Euskararen azentuak*. ASJUren gehigarriak.
- Kayne, R. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge, Massachusetts: MIT press.
- Laka, I. 1993. “The structure of the Inflection: A case study in X^o syntax”. In J.I. Hualde; J. Ortiz de Urbina (ed.) *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company, 21-70 or.
- Makazaga, J.M. 1996. “Perpausen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen”. In I. Zabala (ed.) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 45- 111 or.
- Odriozola, J.C. 2002 “Puntuazioa gramatikagai”. In P. Etxeberria; H. Knörr (ed.) *Txillardegiri omenaldia*. EHUko Argitalpen Zerbitzua (argitara bidean).
- Ormazabal, J., Uriagereka, J., Uribe-Etxebarria, M. 1994. “Word order and wh-movement: towards a parametrized account.” GLOW 17 biltzarrean aurkezturiko komunikazioa. University of Viena.

- Ortiz de Urbina, J. 2002. "Focus of correction and remnant movement in Basque". In X. Artiagoitia; P. Goenaga; J.A. Lakarra (ed.) *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*. ASJUren gehigarriak. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 511-524 or.
- Rijk de, R.P. 1968. "Is Basque an SOV language?". *FLVI*, 3: 319-352.
- Rubio, J. 2002. *Euskararen garabideak*. Irun: Alberdania.
- Zabala, I. 1996. "Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzaileak: *hau da, hain zuzen ere, adibidez, batez ere*". In I. Zabala (ed.) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua, 113-130 or.
- . 2000. "Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan". *Ekaia*, 12, 143-166 or.
- Zabala, I.; Odriozola, J.C. 1992. *Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Zubimendi, J.R.; Esnal, P. 1993. *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.